

Berbarotarra

K

lorez eta argazkiz beteriko aurkezpenarekin eman genien elkartearen berri, aurtengo Batzar Nagusian, elkartutako 30 bazkideei.

Hasteko, Jon Aizpurua Espin lehendakariak gaur egungo lankideak aurkeztu eta iaiz bulegotik pasatutakoak agurtu zituen (Piedad, Garazi eta Hiart, ondo segi!). Agur berezia egin zion Ione Narbaiza Gallastegiri bost urtetan elkartearen kudeatzen jardun duelako eta "lan txukuna" egin duela azpimarratu zuen. Badu erronka polita Lehiorek, beraz!

Ondoren, lan-taldekoak banan-banan irten ginen bakoitzak bere arloaren inguruko azalpenak ematera: iaizko balorazioa eta aurtengo plangintza. Elkartearen egitasmo eta proiektuak ikusteaz gain, Berbaro taldea osatzen duten Anboto, Plateruena, Di-da eta Txokoaren berri ere eman genuen. Eta zelan ez! Zuzendaritza batzordekide berriak aurkeztu genituen. Aurten lehendakari berria izango dugu, Jonek bere kargua utzi eta Nahia Zarzosa Aizpuruari emango dio bidea. Lehendakariorde izango den Jon Urretabizkaia Alberdik eta Manu Arrasate Mugerzak gurekin jarraituko dute. Uxune Martinez Mazaga eta Gorka Barruetabeña Iturriaga ere ondo ezagunak dira gurean; aurten zuzendaritzara egin dute salto. Gainontzean, izen berri ugari: Ugaitz Catalan Eizagirre, Aritz Aldalur Zugadi, Mainer Uribe Lasuen eta Oier Gastañazatorre Gorritxategi. Lanerako prest? Ongi etorri bada denok!

Batzarraren hondarrean, zuzendaritzako kide berriei ongi etorria egin eta utzi berri dutenei eskerrak eman genizkien. Manu Arrasate zuzendaritza batzordekidea arduratu zen modu alaietan. Bere ahotik gauza politik esatea besterik ez omen zen tokatzen eta horrela egin zuen, berarekin elkarlanean ibili diren Jon Aizpurua, Leire Mendiburu eta Xabi Bovedari elkartearen izenean eskerrona adieraziz.

Bilera amaitutakoan, hara gerturatutako beste zenbait bazkiderekin batera, pintxo ederrez eta elkarren berbaroaz gozatu genuen. Lagunarteko solasaldiaren ostean, hurrengoa noiz helduko gogoz geratu ginen.



Gazte taldea martxan!



Begirale talde handia batu gara (20 inguru) eta gogotsu gaude gazte taldearen proiektu berri honi ekiteko. Hainbat alditan batu ondoren, gazte taldearen helburuak, norabidea eta funtzionamendua zehaztu dugu denon artean eta, hori abiapuntutzat hartuz, lanari ekin diogu. Lehenik eta behin, begiraleen arteko topaketak izan genituen Albenizen: asteburu-pasa zoragarria egin genuen bertan (argazkietan ikusi daitekeen bezala), eta gure artean giro polita sortzeko ere balio izan zigun: elkar ezagutu, konfiantza hartu... Oinarriak finkatuta, gazteengana hurbiltzea da hurrengo pausua eta horretarako hainbat ekintza prestatzen ari gara.

Lehenengo, ikastetxeetan zabalkundea egitea da gure asmoa eta 12-15 urte

bitarteko gazteei zuzenduko dizkiegu gure proposamenak; ia apurka-apurka taldea handitzen dugun eta forma polita ematen diogun ilusio handiz hasi dugun abentura berri honi. Aurrerapen bezala, abentura izango da hasiera emateko planteatu dugun ekintzaren funtsa!


Gainera, sortze bidean dagoen talde honi izena ipintzea ere erabaki dugu eta horrekin batera beste zerbait ere... lasai, horren berri ere izango duzue eta!



Oraindik uda urrun ikusten dugun arren, bertan ditugu udalekuak! Urtero bezala, prestaketa lanak hilabete batzuk aurreratzen zaizkigu: lo lekuak bilatu, datak antolatu... eta apurka-apurka udalekuei forma ematen hasi gara.

Antolaketa hasiak gara, beraz, eta zerbait aurreratzeko moduan bagaude. Udalekuetako banaketa berdin mantenduko dugu eta, iaz bezala, hiru programa izango ditugu:

- UDAROAN udaleku finkoa (LH 3.mailatik 6.era bitartekoentzako: 8-12 urte), uztailearen 14tik 25era bitartean burutuko da eta aurten Nafarroan kokatzen den herri txikitxo batera egingo dugu



bisitaldia, Mendigorriara. Bertan izango dugun etxeak badu zer eskaini: futbol zelaia, igerilekua... 130.000 m² gure esku! Hainbat ekintza burutzeko aukera emango digu inguruak eta topera aprobeixatuko dugu!

- Ibiltaria (DBH 1. eta 2.mailak: 12-14 urte), uztailearen 2. hamabostaldian. Datak oraindik zehaztu gabe ditugu eta ibilbidea ere lotzen ari gara baina, aurten ere, beste euskara elkarte batzuekin batera burutuko ditugu udalekuak eta gure gazteek hainbat herritakoekin harremanetan jartzeko aukera paregabea izango dute.

- KTG ibiltaria (DBH 3. eta 4. mailak: 14-16 urte), uztailearen 1.hamabostaldian (datak eta ibilbidea oraindik zehaztu gabe). Iazko arrakasta ikusita, aurten ere ibiltari hau Lasarteko Ttakun euskara elkartearekin batera burutuko dugu. Gainera, elkarte gehiagok ere ibiltariak data berdintsuetan burutuko dituzte eta, hori aprobeixatuz, gazteon topaketa mundiala egingo dugu amaierako jai handia prestatuz!

UDALEKUAK 2010

AGENDA

ZOLAR ASTEA OTU
JOSEBA SARRIONANDIARA
idazle iurretarraren gaineko aste tematikoa (martxoak 24-28)


KOBLAKARIAK BEHAR DITUGU
GOTZON BARANDIARAN, MIREN AMURIZA, ENAUT ELORRIETA, KARRIKA ANTZERKI TALDEA, UNAI ITURRIAGA.
M24 10:00etan, Plateruenean (ikastetxeentzat)
M25 20:00etan Plateruenean (emanaldi zabala)

AULKI HUTSA
LE PETIT THEATRE DE PAIN
Antzerki taldeak Joseba Sarrionandiaren testuekin osatua.
M26 22:00etan San Agustin Kulturgunean

IBILALDI BAT MEMORIAREN MAPAN Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarritutako **IBILBIDEA**.
0:00 Aita San Migel plaza
0:20 San Mames ermita
1:05 Gauria
1:30 Askorra
1:50 Ertzilgo garaia
2:10 Aita San Migel plaza
M28 10:00etan Plateruenetik.

LITERATURA ESKOLA
XABIER MENDIGUREN idazlea Joseba Sarrionandiaren lanaren ganean berbetan.
M27 10:00etan Udal Liburutegian.



leguntzailak:  antolatzaileak:   Literatura 

MARTXOAK 28

Olgetan tailerrak: malabareak, kariokak eta firi-firiak. 17:30ean, Plateruenean. Dohainik.

APIRILAK 14, 21 eta 28

Kontserba begetalak eta mermeladak egiten ikasteko ikastaroa. 18:00etatik 21:00etara, Berbaroren txokoa. EHNE-ren eskutik. Dohainik. Izena emateko deitu edo idatzi elkartera lehenbailehen!

APIRILAK 22

Laburbira, Film laburren zirkuitua, Durangon, Plateruenean, 20:00etan. Dohainik.

APIRILAREN 23an HASITA

IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU, liburuaren nazioarteko egunetik uztailaren 25a arte:

Durangoko eta inguruko hainbat udal liburutegietako euskarazko edozein liburu mailegatu hartu eta irakurri ostean, liburuazainak irakurritako liburuari dagokion fitxa eta erosketa-txekea luzatuko dizkio erabiltzaileari. Fixtan liburuari buruzko galdera batzuk erantzuteko eskatzen da (zer gustatu zaizu gehien? etab.). Berbaroko bazkideek erosiko duten liburuaren %50a ordaintzeko baliatu ahalko dute erosketa-txekea. Horretarako bazkide txartela erakutsi beharko diote liburu saltzaileari, edo izena eman, saltzaileak Berbaroko bazkideen zerrenda izango baitu. Informazio gehiago nahi izanez gero: elkartearen 94 620 19 18 telefonora deitu

Udaleko euskara zerbitzua

Joan den mendearren azken urtean hasi zen Berbaro Durangoko Udaleko euskara zerbitzuko zereginetan laguntzen. Badira jada urtetxo batzuk! Udalak, azken urteetan, deialdia egin izan du lehiaketa publiko bidez zerbitzua kontratatzeko eta 2009ko urte amaieran, lehiaketa berrira aurkeztu eta berriro ere irabazi genuen, lan handia egin ostean. Horrela, bada, orain artean bezala, hurrengo bi urteetan ere Berbaro ibiliko da Durangoko euskara zerbitzuan. Udaleko administrazioan presente egotea garrantzitsua da Berbarorentzat, barrutik eragiteko aukera ematen digulako.

Aurreko lehiaketekin konparatuta aldaketa nagusia hau da: aurrekoetan langile bi izan ditu gure elkarteak herrira begirako euskara plana bete dadin laguntzen, bata dinamizazio lanetan eta bestea, **Guk euskeraz** egitasmoaren bitartez, merkataritza eta elkartearen euskararen erabilera sustatzen. Badago berririk oraingoan: izan ere, lehengo lanak gure gain hartzeaz gain, udal barruko euskara planaren kudeaketaz ere arduratuko gara hemendik aurrera. Erronka berria, beraz, elkartearentzat eta langileentzat ere bai, jakina! Zeregin berria udal-langileak euskaraz lan egin dezaten trebatzea izango da: trebatze saioak antolatzea eta ematea, dokumentu ereduak orraztea eta prestatzea eta planean zehazturiko gainontzeko lanak burutzea.

Badugu zer Badugu zer egin hurrengo urteetan ere!

Sagardotegira irteera

Sagardotegirako gogoz? Berbalagunek antolatuta joan gara ba oraingoan ere! Martxoaren 6an izan zen irteera. Bi autobuskada irten ziren arratsaldeko 16:30ean Durangotik Usurbilera baina lehenengo geldialdia Getarian egin genuen. Paseo bat, poteoa... eta, handik, trikitilariak giroa alaituta, Urdaira Sagardotegira. Hango jan-edan ederra eta lagun-giroarekin gozatu eta Durangora bueltatu ginen. Plan ona ezta? Datorren urtean ez hutsik egin, gero! Baina aurretik egongo dira beste ekintza pilo bat Berbalagunekin egiteko. Badakazu parte hartzea eta badakazu berbalagun izatea. Animatu!



argitalpen berriak



Euskara, eskaintzarik onena

Formatua: CDa
Argitalpen data: 2009

Merkataritzan euskararen erabilera sustatzea da CD honen helburua. CDak lau atal ditu (hiztegia, kartel ereduak, idazkiak eta argibideak) eta euskara hutsez eta ele bietan egin dira merkataritza eta ostalari guztiengana heldu asmoz. Hau da, merkataritza zein ostalariak eguneroko lana euskaraz burutzeko beharrezkoak dituzten baliabideak biltzen ditu CDak.

Merkataritzako arlo ezberdinetan euskararen erabilera sustatzeko CDa garatu dute egitasmoan parte hartu duten udalerriek. Guztira 17 udalerrik parte hartu dute egitasmoan, Durangoko, Berrizko eta Zaldibarko udalek, besteak beste, eta guztien artean 2.000 ale baino gehiago argitaratu dituzte. CDan dagoen informazioa Azkue Fundazioaren Alkarbideren ekimenak atalean edota www.durango-euskaraz.net webgunean topatu dezakezu.

CDa bera eskuratu nahi duen merkataritza edo ostalariak Euskara Sailera ere jo dezake.

Kanpaina, aipatutako udalez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELeK (Euskadiko Udalen Elkarteak) babestu dute.

Laguntzaileak:

ikimilikili..klik

BERBARO AMARAUNEA

www.berbaro.com da gure elkartaren webgunea. Badakigu ez dela oso web gune erakargarria, estatiko xamarra dela eta erabilgarri-erabilgarria ere ez dela... Orain artean sarean egoteko izan dugun modu bakarra zaharkitua geratu zaigula esateko lotsarik ez dugu, egia borobila da eta.

Horregatik, gabezia honekin jabeturik, duela pare bat hilabete, web gune berria eraikitzeke esketu genien di-dako (www.di-da.com) lagunei eta ilusio handiz gaude, gogotsu, Berbaroren errealitatea eta egunerokotasuna era dinamikoagoan aurkezteko denbora gutxi falta da eta. Izango duzue bada honen berri!

Webgune berri honen bidez, Berbarok egindako gogoetatik ateratako ondorioetan lan egin nahi dugu: egiten dugun guztiaren berri eman, herritarrengana heldu, bazkideak aktibatzen saiatu, eztabaida gunea sortu... Ikusten duzue, tresna paregabea izango dugu web gune berria!

Horrez gain, gaur egun, sare sozialak ere baditugu, gero eta aktibago, gero eta partehartzaileago. Facebook eta Tuentin presente dago Berbaro. Dagoeneko 203 lagun ditu Berbarok Facebook-en eta Tuentin. Zeu ere egin zaitez gure lagun!

Zer dira, baina, sare sozialak?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Webgune_soziala estekan bilatuko duzue erantzuna.

Tuenti da gazteei zuzenduta eta akaso gazteen artean gehien erabiltzen dena: <http://es.wikipedia.org/wiki/Tuenti>

Hala ere, Tuentiren klon euskaldunak ere badaude:

www.zulozale.com eta www.zugaz.com

Gure gazteak bertsio euskaldun hauek erabiltzera animatu nahi ditugu!